

## GURE IDEIA:

Ideia hau goiz batean sortu zen, eskolara joan aurretik. Armairuaren aurrean geunden eta armairuaren ondoan erabili gabe genuen arropa-kopuruaz ohartu ginen. Gizaki askok arazo hori dugula ohartu ginen. Batzuk besteak baino eskala handiagoan, baina badugu. Horregatik sortu zen armairu barrenean galdutako arropa guztia erabiltzeko aukera ematen zuen aplikazio hau. Gainera, alferrikako arropa gehiago erostea saihesten du.

Eguneroko zeregin batean laguntzeko sortu da aplikazio hau, eguneroko arropak aukeratzen laguntzeko. Biztanleriaren zati bati laguntzeaz gain bereziki daltonikoei laguntzen diogula ohartu ginen. Aplikazio honi esker, kolore zuzenak konbinatuz jantzi ahal izango dira. Munduko populazioaren %8 bakarrik daltonikoa izan arren, ez dira gutxi. 350.000.000 pertsona, zehatzagoak izateko.

Lan hau teknologia berriak erabiltzen dituen ororentzat egina dago. Garai honetako aurrerapenak ere pentsatuta daude; beraz, aplikazioa moldagarria izateko zure estiloa aukeratzeko orduan, iragazkiak ez daude generotan sailkatuta, estilotan baizik. Badu beste abantaila bat ere: arropa bakoitza noiz garbitu behar duzun ohartarazten dizu, zure nahietara moldatuz.

Azkenik, aplikazio honek beste bi atal ditu aipatutakoez gain: bata, Newsletter-ekoa, non modari buruzko oinarrizko berriak eta aholkuak aurkituko dituzun; eta bestea, GKE batekin harremanetan jartzeko, erabiltzen ez duzun arropa eman ahal izateko.

ITZIAR SARASOLA, MAITANE SANCHEZ eta ENERITZ AROZENA